BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3527

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 23koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerei diru-laguntzak emateko balorazio batzordeko kideak izendatzen dituena eta batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusi da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko ekainaren 17ko Agindua, antzerkiko profesionalak prestatzeko egitarau eta jarduerei diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Kontuan izan da 2015eko ekainaren 17ko Aginduaren 11. artikuluak aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horretako kideen izendapena Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez egingo dela.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Kideak:

– Pedro Sanz Legaristi jauna (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordetza).

– José Luis Ibarzabal Egibar jauna (Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza).

Idazkaria: Arturo García Fiel jauna (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 23a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.